




Behar Hitzza Leioa



Behargintza Leioa

Aurten, ikastaro desberdinak antolatu ditugu bai enplegua bilatzen duten pertsonentzat, bai ekintzaileentzat, baita enpresentzat ere. Lan merkatutik gertu egon nahi izan dugu, beharrianak antzemateko eta horiei erantzuna emateko. Asmoa zen gure enpresa ehunduraren lehiakortasuna eta guregana datozen pertsonen lan gaitasunak hobetzea.

Ildo horretan, eskaera handiko ikastaroak eskaini ditugu. Adibidez, mendekotasuna duten pertsonentzako arreta eta zaintza, elikagaiak erabiltzea, DUMPER, marketin digitala, etab. Ikastaro batzuetan, eskatzaileek enpresetan praktikak egiteko aukera izan dute, eta merkatuko eskaera ikusi dute.

Enpresaren ikuspegitik, kontuan hartuta “gehiago saltzeko behar” etengabea eta argi identifikatua, herriko enpresa eta merkatariari salmenta estrategien gaineko prestakuntza eskaini zaie. Kurtso horietan, taldeko prestakuntza eta banakako aholkularitza saioak antolatu ditugu, azken horiek euren saltokietan bertan, arazo propioei erantzuna eman ahal izateko.

Eta horrela jarraitu nahi dugu lanean. Bai lana bilatzen duzuen pertsoneri, bai enpresei laguntzen jarraitu nahi dugu. Beraz, prest gaude zeuen iradokizunak entzuteko datorren ikasturteko prestakuntza-eskaintza antolatzeko. Behargintzan baditugu zenbait jarduera identifikatuta, baina zeuen ekarpenak jakin nahiko genituzke. Zeuen eskura gaude posta elektronikoko honetan: behargintza@leioa.net

Besterik gabe, irailera arte, agur. **Uda ona pasa.**

Behargintza Leioa Enplegu eta Tokiko Garapenerako Zentroa

Mendibil kalea, 3 . 48940 - Leioa
Tfnoa.: 94 400 41 95 | Faxe: 94 402 25 41
www.behargintzaleioa.net
behargintza@leioa.net

 @LeioaBG  Leioako Behargintza

SAILAK:

Orientazioa
behargintza.orientazioa@leioa.net

Prestakuntza
behargintza.enplegua@leioa.net

Enpresa
behargintza.enpresa@leioa.net

Ekintzailetza
behargintza.ekintzaile@leioa.net

Azken urtean, zure denda modernizatzeko hobekuntzarik egin duzu?

Uztailaren 2tik aurrera, **Merkataritza-saltokiak Modernizatzekeo MSM diru-laguntza**, Eusko Jaurlaritzarena, eska dezakezu, zure negozioa modernizatzeko alegia.

Diru-laguntzak hauek izan daitezke:

- %20 (900 euroko gutxieneko inbertsioarekin) inbertsio hauetan: balantza elektronikoak, informatika ekipoak, aplikazioak eta horien osagarriak.
- %15 (3000 euroko gutxieneko inbertsioarekin), inbertsio hauetan: lokala berriztatu eta modernizatzea, altzariak eta merkataritza jarduera burutzeko behar diren ekipamenduak.

Diru-laguntzak ez du, inoiz, 12.000 euroko zenbatekoa gaindituko, saltoki eta urte bakoitzeko.

Eskaerak [aurkezteko epea](#) uztailaren 2an hasiko da, 9:00etan, eta irailaren 15eko 12:00etan amaituko da

Balio erantsirik eman nahi diozu zure negozioari? Leioa Bidean

Leioa Bidean etxez etxe banatzeko zerbitzua da, merkataritza urbanoa herritarrei hurbiltzeko diseinatua, eta leioaztarren erosketak erraztuz.

Gaur egun, zerbitzu hau Leioako Merkatarien Elkarteak ematen du eta interesatuta dauden udalerriko merkatarizuztien eskaintzen die, elkartekideak direnei eta ez direnei.

Zerbitzuak duen kostua erosketak etxera bidaltzea eskatzen duten bezeroen eta zerbitzua ematen duten merkatarien artean ordaintzen da.

Informaziorik nahi baduzu edo zerbitzua eman nahi baduzu, kontaktuan jarri helbide honetan: merkataritza@leioa.net.

Gogoratu zerbitzuaren helburua dela balio erantsia ematea herritarrek zure dendan egiten dituzten erosketek.

Edozein informazio behar baduzu, jarri harremanetan Behargintza Leioarekin: [94.400.41.95](tel:94.400.41.95) telefono zk. edo merkataritza@leioa.net

Argi daukazu zure prezio estrategia?

Pasa den ekainean, ekintzaileekin prezio estrategia edo pricing-ari buruzko tailerra egin genuen. Ezinbestekoa da prezioari buruzko gure enpresaren posizionamendua ezagutzea edozein momentutan, baina bereziki, sortzerako orduan, hausnarketa hori are garrantzitsuagoa da.

Inventium enpresako Alberto Contrerasen eskutik, prezioaren gaineko hausnarketak egin genituen, eta artikulu honen bidez, azpimarratu eta partekatu nahi ditugu.

- Prezioa, marketin alorrean, diru-sarrera den P bakarra da eta ez gastua.
- Gastuen kontrolak baino gehiago eragiten du etekinetan edo galeretan.
- Enpresa ixteko modu errazena da merkeena izatera jolasean ibiltzea, lehia abantailarik eduki barik.
- Erosterako orduan, prezioa ez da bezero batek kontuan hartzen duen lehen gauza. Balioesten duena da prezio horrek gainerako erabakitze-faktoreekin duen harremana. (Balioaren pertzepzioa)
- Jakin behar dugu prezioen aldakuntzaren eragina zein den errentagarritasunean.
- Erraza da prezioak jaitea baina oso zaila berriro igotzea.

Prezio egokia finkatzeko kanpo eta barne azterketa ona egin behar dugu, gure balio proposamena ondo definituta eduki, eta prezio-helburuak eta -estrategia ezarri

Merezi du hausnarketa hauek kontuan hartzea gure enpresaren biziraupena ez baldintzatzeko finkatu ditugun prezioekin, eta prezio horiek lagundu dezatela enpresaren ekonomi- eta finantza-bideragarritasuna egonkortzen.



Prestakuntza

Zer dira EUROPASS osagarriak?

Zer da Europass?

Europass gaitasun eta kualifikazioen gardentasunerako Europak ezarritako Marko Bakarra da (2241/2004/KE Erabakia) mugigarritasuna errazteko herrialde eta sektoreen artean, bai ikasketa iraunkorrerako, baita xede profesionaletarako ere.

Oraingoan, eta laneratze eta mugigarritasun aukerak zabaltze aldera, EUROPASS OSAGARRIEI so egingo diegu, bereziki, **Profesionaltasun Ziurtagiriei** buruzkoa. Esan beharra dago Europass **5 agiriz** osatuta dagoela, eta horietatik bi, interesdunak bete ditzake zuzenean: CV Europass eta Europako Hizkuntzen Pasaporte. Hala ere, CEDEFOPen (Lanbide Heziketa Garatzeko Europako Zentroa) ardura da beste hirurak egitea: Titulu/Ziurtagirirako Europass Osagarria; Goi Mailako Titulurako Europass Osagarria; eta Mugigarritasuneko Europass agiria.

Zer da Profesionaltasun Ziurtagirien gaineko Europass Osagarria?

Beste batzuetan ere hitz egin izan dugu prestakuntza ziurtagiridunak lan munduan duen garrantziaz eta lan esperientzia ziurtatu ahal izateko prozeduraz. (http://apps.lanbide.euskadi.net/apps/FR_BUSQUEDA_CURSOS?LG=E&ML=FORMEN1)

Oraingoan, Profesionaltasun Ziurtagirietarako Europass Osagarriez hitz egingo dugu. Europass Osagarria informazio agiria da, instituzionala, Lanbide Heziketaren gaineko ziurtagiri ofizial bati erantsita doana. Bere helburua da gardentasuna sustatzea eta hirugarrenei, bereziki enplegatzailerei eta beste herrialde batzuetako erakundeei, erraztasunak ematea titularrak dituen gaitasunak ulertzeko. Europass osagarria ez da titulu ofiziala ordezkatzeko duen ezer, ingelesez eta Europako beste hizkuntza batzuetan dagoen informaziorako osagarria baizik. Aspektu hauei buruzko informazioa dakar: gaitasunak eta ikasitakoaren emaitzak, bete daitezkeen enplegu motak, izapidetzea eta ziurtatzea egin duten erakundeak, Ziurtagiria edo Titulua lortzeko moduak, tituluaren nazioarteko maila, beste ziurtagiri ofizial batzuk eskuratzeko baldintzak eta aukerak.

Informazio gehiago eta argitzapen bideoak hemen: <http://bit.ly/1st6xnA>

BILAKETA-BIDEAK

Badakizu nora jo lan bila? Gaur egun, lan-eskaintzak hainbat bidetatik zabaltzen dira: enplegu-atarietatik, lan-poltsetatik, hautaketa-enpresetatik, prentsatik... Bide bakoitzak bere ezaugarriak eta berezitasunak ditu. Merezi du haiek oso ongi eza-gutzea eta identifikatzea zer bide diren egokienak bilatzen ari zaren lanerako, bilaketa eraginkorragoa izan dadin

Lan-merkatua

Oso garrantzitsua da jakitea nola funtzionatzen duen eskualdeko lan-merkatuak eta zein diren bilatzen ari zaren lanaren ezaugarriak

Lana bilatzeko bideak

- Kontaktu pertsonalen sarea.
- Sare sozialak (LinkedIn, Facebook, Twitter...)
- Enplegu-atari orokorrak eta sektoreka edo lanbideka espezializatutakoak.
- Prentsako iragarkiak.
- Kontratazio-agentziak. Aldi baterako laneko enpresak, enplegu-agentziak.
- Langileak hautatzeko aholkularitza-enpresak.
- Merkataritza-ganberak.
- Lanbide-elkargoak eta -elkartek.
- Enplegatzaileen feriak eta ekitaldiak, enpleguarekin eta prestakuntzarekin lotutako erakundeak...
- Norberaren hautagaitza (aurrea hartzea eta zeure burua enpresei eskaintzea, nahiz eta ez izan lan-eskaintzarik une horretan).

<http://www.lanbide.euskadi.eus/informazioa/bilaketa-bideak/y94-orient/eu/>



Agenda

Abuztua:

Abuztuan ez dugu jarduera edo ekitaldirik izango, baina... Adi egon, irailean agenda berria aterako dugulako. Beti bezala, Behar Hitza aldizkarian aurkituko duzu.



Dirulaguntzak

Bizkaiko Foru Aldundiaren 111/2015 FORU DEKRETUA, uztailaren 14koa, zeinaren bitartez aldatzen baita 2015ko martxoaren 10ko 32/2015 Foru Dekretua, Artisautza Sustatzeko Programaren oinarri arautzaileak eta haren lehenengo deialdia onartzen dituena. [Buletinerako Sarbidea](#)

EBAZPENA, 2015eko uztailaren 3koa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita 2015. ekitaldirako zenbait laguntza emateko deialdia, honako esparru honen barruan: turismo-enpresen lehiakortasuna hobetu eta modernizatzeko laguntza-programa arautzeko Aginduak finkatutakoa. [Buletinerako Sarbidea](#)

IRAGARKIA, «AFI-Finantza Laguntzak» Programa aldatzeko dena. [Buletinerako Sarbidea](#)

Elkarrizketa

Deskribatu ahal diguzu zuen aktibitatea?

VENANDCOM-en kalitatezko bigarren eskuko artikuluen salerosketarako laguntza zerbitzuak eskaintzen ditugu. Objektuen bizitza baliagarria luzatzean datza, eta halaber, hondakin gutxiago sortzea, ingurumeneko inpaktua murriztea eta gure bezeroek dirua aurrezteko lortzea. Azken batean, gure helburua da artikulua berrerabiltzeko esparrua sortzea eta kontsumo arduratsua sustatzea, erabiltzen ez dena saldu ahal izateko, eta era berean, behar dena arrazoizko prezioan erosteko.

Zergatik sartu zarete bigarren eskuko merkatuarekin lotutako jardura batean? Uste duzue eskaerarik dagoela merkatuan?

Bigarren eskuko merkatuari buruzko mentalitate aldaketa egon da eta krisiaren eraginez erosleek Internetera jo behar izan dute prezio onak bilatzeko. Horregatik bultzatu dugu bigarren eskuko merkatuarekin eta merkataritza elektronikorekin lotutako jardura. Erabiltzen ez diren eta egoera onean dauden objektuak biziberritzeko ideia eta Internet bidezko salmenta zuzena egonkortzen ari dira urterik urte.

Lehiakideak aztertu dituzue? Eta zuen arteko diferentziarik nagusiak?

Bai, jakina, hori gakoa izan da gure Negozio Plana egiterako orduan. VENANDCOM-en sinesten dugu kalitatezko bigarren eskuan, kalitatezko artikuluen bigarren eskua hobea delako. Bigarren eskuko materiala salerosten duten dendetatik desberdintzen gaituen beste gauza bat da guk, salerosketa horretan, bitartekaritza zerbitzuak eskaintzen ditugula, hau da, ez ditugu bezeroek dakarzkiguten artikulua erosten, ostera, laguntzen diegu horiek merkatuan prezio errealean saltzen.

Zergatik erabaki duzue negozio berri honi Leioan ekitea?

Asko izan dira Leioan irekitzeko arrazoiak. Ingurua ezagutzeari eta egin genuen merkatu azterketari esker, udalerraren beharrian bat antzemateko aukera izan genuen. Motibatzen gaitu, baita ere, Lamiako auzoaren birsortzeko parte aktibo izateak eta ingurumena zaintzen duen jardura burutzeak.

Egin duzuen ekintzailtza ikastaroaz gain, udalerriko merkataritza txikiarentzako Merkataritza Estrategiako prestakuntza programan ere parte hartu duzue. Zer esango zenikete udalerriko saltoki aktibo bati prestakuntza programen erabilgarritasuna ikus dezan?

Uste dugu prestakuntza jarraitua oso garrantzitsua dela edozein jardueraren garapenean. Enpresek etengabe aldatzen ari den merkatura egokitzeko beharra dute, eta behar hori eta negozio arlo guztietan prestatzeko beharra zuzenki proportzionalak dira. Leioako merkataria prestakuntza programetan parte hartzera animatzeko beste aspektu bat da lankidetzaren esparru batean lan egiteko eskaintzen zaigun posibilitatea, etorkizunean negozio aukerak ahalbidetzeko.

Aukara hau baliatu nahi dugu enpresa-abentura berri honetan jarri duzuen interesa eskertzeko eta mundu guztia animatzen dugu gure filosofiaren parte izatera: berrerabili, birziklatu, murriztu eta asmatu!!!



